'LASA-ZABALA AUZIA'. Bost zigortuek aurkeztutako helegite motibo guztiak atzera bota ditu Auzitegi Gorenak

Auzitegi Gorenak lau urtez luzatu du Galindo eta Elgorriagaren zigorra

Funtzio publikoaren larritze motiboa aintzat hartu du epaimahaiak zigorra luzatzeko

Pello Urzelai | DONOSTIA

Joxean Lasa eta Joxi Zabala gazteen bahiketa eta hilketan parte hartzegatik Espainiako Entzutegi Nazionalak Enrique Rodriguez Galindo, Julen Elgorriaga, Angel Vaquero, Enrique Dorado eta Felipe Bayori ezarri zizkieten zigorrak lau urtez luzatu ditu Auzitegi Gorenak. Funtsean, Entzutegi Nazionalaren zigor epaia ontzat jo du Auzitegi Gorenak, soilik aldeek aurkeztutako helegite motibo bakar bat aintzat hartu baitu. Motibo hori Lasa eta Zabalaren senideen izenean jardun zuen akusazio partikularrak aurkeztu zuen eta, finean, «izaera tekniko» du, epaiak berak dioenez.

Zigorra ezartzerakoan Entzutegiak Kode Penal zaharra ezarri zuenez, legez kanpoko atxiloketaren delitua funtzio publikoa betetzearen larritze motiboa kontuan hartu behar zela argudiatu zuen akusazioak. Auzitegi Gorenak arrazoia eman dio. Horregatik akusatu guztiei lau urtez luzatu die espetxe zigorra, bina urte hildako gazte bakoitzeko. Ondorioz, *Lasa-Zabala auziko* zigorrak honela gelditu dira: Rodriguez Galindo eta Elgorriagaren espetxe zigorra 71 urtetik 75 urtera gehitu da (Elgorriaga astelehenetik aske da osasun arrazoiak direla eta), Vaquerorena 69 urtetik 73 urtera eta Dorado eta Bayorena 67tik 71ra.

Aipatutako motibo hori ez ezik Auzitegi Gorenak ez du besterik onartu. Akusazioek aukeztutakoei dagokionez, Auzitegiak ez du onartu akusatuak talde armatuko kidetzat jotzea. Halaber, ez du onartu tortura deliturik aintzat hartzea. «Tortura edo lesioak izatearen ziurtasun iritzirik eza Salak frogak aurkitzeko egiaztatu zuen ezintasunetik dator, zeren eta bendak egotea zaurien zantzua izan badaiteke ere ez dago beste daturik eta, aldiz, gorpuzkinak zueden tokian azkazalak aurkitzea fenomeno natural gisa onartzen du Salak», dio Auzitegi Goreneko epaiak.


J.M. ESPINOSA / EFE
Enrique Rodriguez Galindo eta Angel Vaquero Entzutegitik irteten, epaiketa izan zen garaian.

TORTURA

Tortura edo lesio deliturik izan izana ez du onartu Auzitegi Gorenak, eta «egiaztatzeko ezintasuna» argudiatu

Zigortuen abokatuek aurkeztutako helegitei dagokienez, Auzitegi Gorenak nabarmendu du epamahaiak «kargu frogak» izan zituela eta ez dagokiola errugabetasunaren urraketa argudiatzea. «Entzutegi Nazionalak ebatzitako epaiaren ziurtasun iritzia», dio Auzitegi Gorenak, «erabat arrazoizkoa da eta bat dator logikaren eta esperientziaren arauekin. Aztertutako ekintza larria bitartekoen perbertsio kasu bat da, non ahazten den terroreari aurre egiteko zilegitasuna izanik ere defentsa hori soil soilik Zuzenbide Estatuaren baloreetatik bete daitekeen, eta, beraz, defendatzen dela esaten dena bortxatu gabe».

Rodriguez Galindo, Vaquero eta Doradoren abokatuek jakinarazi zuten atzo babes helegitea aurkeztuko dutela Auzitegi Konstituzionalean. Galindoren abokatu Jose Maria Fuster-Fabrak gehitu zuen Auzitegi Gorenaren epaia «ETAren garaipen handia» izan dela. Herri akusazio gisa aritutako Maria Angeles Lopez abokatuaren ustez, berriz, epaia «justua» da. Hala ere, talde armatuko kidetzat harturik zigortu behar zituztela uste du herri akusazioko abokatuak.

TALDE ARMATUKO KIDETZA

GAL geroago sortu zela dio Auzitegi Gorenak

Akusazio partikularrak eta herri akusazioak aurkeztutako helegiteetan akusatuak talde armatuko kidetzat jotzea eskatzen zuten, baina Auzitegi Gorenak ez du aintzat hartu eskaera. Horretarako GAL Lasa eta Zabala bahitu eta hil baino geroago sortu zela argudiatu du Auzitegiak, hain zuzen ere, 1983ko abenduaren 14an Segundo Marey aske utzi zutenean GALek sinatutako agiri batekin. Baieztapen horren oinarria Marey kasuan Auzitegi Gorenak ebatzitakoa da. «Ezinezkoa da zigortuak GAL talde armatuko kidetzat hartzea talde hori epaitutako gertaerak baino hilabete batzuk geroago sortu zelako», dio atzo kaleratutako epaiak.

Horrez gain, epamahaiaren ustez, «ez da agertzen loturarik auzi honetan zigortutakoen eta Marey kasuan GALi bizia ematen agertzen direnen artean». Bestalde, 1984ko urtarrilaren 20ean Alacanteko SER irratian GALen izenean jaso zen deiak taldearen sorrera atzerago kokatzeko ez duela balio argudiatu du Auzitegi Gorenak.

ZIGOR FINKOAK


E. RODRIGUEZ GALINDO
(Guardia Zibileko jenerala)
75 urteko espetxe zigorra ezarri diote, bi hilketa eta legez kanpoko bi atxiloketa deliturengatik, funtzio publikoaren izaera kontuan harturik.


JULEN ELGORRIAGA
(Gipuzkoako gobernadore zibil ohia)
75 urteko espetxe zigorra ezarri diote, bi hilketa eta legez kanpoko bi atxiloketa deliturengatik, funtzio publikoaren izaera kontuan harturik.


ANGEL VAQUERO
(Guardia Zibileko komandantea)
73 urteko zigorra ezarri diote. Rodriguez Galindo eta Elgorriagari egotzitako delitu beragatik zigortu dute Intxarrondoko kuartelean aritutako guardia zibila.


ENRIQUE DORADO
(Guardia zibil ohia)
71 urteko espetxe zigorra ezarri dio Auzitegi Gorenak, bi hilketa legez kanpoko eta bi atxiloketa deliturengatik, funtzio publikoaren izaera kontuan harturik.


FELIPE BAYO
(Guardia zibil ohia)
71 urteko espetxe zigorra ezarri dio Auzitegi Gorenak, bi hilketa eta bi legez kanpoko atxiloketa deliturengatik, funtzio publikoaren izaera kontuan harturik. .